

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko, hainbat baliabide fisiko nahiz intelektualekin kontaktzen dugu. Baliabide fisikoei dagokionez, ordenagailua, korreoak jasotzeko nahiz erantzuteko, hainbat zalantza erantzuteko, aplikazioa ondo funtzionatzeko egin beharreko aldaketak egiteko, bezeroekin kontaktatzeko, inkestak eta formularioak egiteko eta ondoren bidaltzeko, eta aplikazioa diseinatzeko beharko dugu; mugikorra, ordenagailuarekin batera aplikazioa ondo funtzionatzen duela ziurtatzeko, deiak jaso eta erantzuteko; eta lokala, bezeroekin elkartzeko eta gure arteko bilerak egiteko erabiliko dugu. Baliabide hauek eskuratzeko ez ditugu zailtasunik izango, izan ere, bakoitzak etxean ditugun mugikor eta ordenagailuak aprobetxatuko ditugulako, beraz bi hauetan ez dugu dirurik inbertituko. Honi esker aurreztutako dirua lokala alokatzeko erabiliko dugu, *UGGASA* enpresarekin hitz egin eta oso prezio onean aurkitu digu tokia. Hilabeteko 30€ ordainduta, lokala, wifia, eta argindarra barne egongo dira.

Bestalde, baliabide intelektualei dagokienez, bezeroei zerbitzu onena eskeintzeko gutako bakoitzaren zaletasun zein abileziez baliatuko gara, bakoitzak gaitasun desberdin bat duelako. Hau izango da gure enpresaren indargunea.

- ★ Mariak, esaterako, matematiketan duen trebetasuna aprobetxatuz, enpresaren gestio eta kontuetaz arduratuko da. Oso lagungarria da bera bezalako taldekide bat izatea, bera gabe ezingo genukeelako enpresaren gestioa ondo gauzatu.
- ★ luneren kasuan, harremanetarako erreztasuna du, eta bere pasio eta dedikazioa jendearen aurrean aprobetxatuko dugu. Hori gutxi balitz, komunikatzeko eta besteen arazoak ulertzeko gaitasuna du, izan ere, besteak entzuteko abilezia du. Gainera, hainbat hizkuntza menderatzen ditu. Ez dugu lune baina pertsona hoberik ezagutzen lanpostu hau betetzeko.
- ★ Aneri dagokionez, sorkuntzaren atala oso garatua duenez, aplikazioaren diseinuaz arduratuko da. Pertsona perfektionista eta sortzailea izateaz gain, oso aktiboa da sare sozialen munduan, sorkuntza handia du bezeroak erakartzeko garaian eta sormen bide berriak bilatzeko guztion arreta erakartzeko. Honekin batera, lehenago aipatu dugun bezala, Ane izango da Twin Melody eta Dani Garcia futbolariarekin, esaterako, kontaktuan jarriko dena, hauek gure aplikazioa publizitatu dezaten.
- ★ Aplikazioa sortzeaz eta bertako arazoak konpontzeaz Endika arduratuko da, informatika arloan abilezia handia duelako. Oso perfektionista eta xehetasun txikienetaz arduratzen da, badakigu aplikazioa hoberena izango dela Endikari esker. Gainera, gaitasun handia du diseinuak birsortzen, beraz ziur gaude Anek ematen dion diseinua oso ondo irudikatuko duela. Bere azkartasuna dela eta, garbi dugu bezeroen zalantza eta arazoak oso denbora gutxian argituko ditugula. Horretaz gain, gure diruaren zati bat COVID-19-an laguntzeko izango da, eta ondoren GKE eta ospitaletara ere bideratuko dugunez, Endika arduratuko da hauekin kontaktuan jartzen.
- ★ Brandy garraiolari nagusia izango da. Bere amak furgoneta bat duenez, eta 18 urte dituenek, ekintza hau betetzeko aproposena ikusten dugu.

- ★ Azkenik, elkarlanean, unibertsitate zein eskoletara joango ginateke. EHUko, Deustoko eta Mondragonneko unibertsitateak. Baita Urretxu-Zumarragako, Haztegiko, Elgoibarko, Beasaingoko, Bergarako, Hernanitetako eskoletara ere. Izan ere, gure trebetasun guztiak bateratzen, izugarrizko aurkezpenak egin ahal izango ditugu, guztien oroimenean geldituko direnak. Horrela, bezero gehiago lortzeko kontaktuak eskuratu ahalko genituzke, gure enpresa gehiago ezagutarazteko ere bai.

Hainbat produktuen banaketa lana posible izan dadin, gure senideen bidez furgoneta bat eskuratuko dugu, modu honetara alokailuaren dirua aurreztu ahal izango dugu. Produktuak bezeroen eskutara iristea ahalbidetuko duena, Brandy izango da, hemezortzi urte dituelako eta gida baimenaz baliatzen delako.

Hau dena posible izan dadin, gure poltsikotik dirua jarri beharko genuke, nonbaitetik hasi ahal izateko. Baina diru gutxi beharko dugunez, posible izango dugu aurrera ateratzea. Bankuari ez diogu mailegurik eskatuko, hasierako kostuak ez dira oso altuak, beraz gure poltsikotik jartzea posible izango litzateke.

*UGGASA*k alokatutako lokalean, zenbait altzari eta apalategi jartzeko asmoa dugu, horrela gure lantokia ordenatuta mantenduko dugu. Hala eta guztiz ere, ahal den guztia gure ezagunen bitartez lortzea saiatuko gara. Berriz ere, ahalik eta diru gutxien inbertitzeko asmoz.

Gainera, gure proiektua aplikazioaz baliatzen da. Aplikazio hau, guk sortu eta gure esku egongo da, hau da, guk bideratuko dugu. Hau ahal den eta gehien zabaltzeko, hainbat modutara publikizatuko dugu, sare sozialen bitartez, eta lehen aipatu moduan, aurrez aurre unibertsitate eta eskola desberdinak bisitatuz.

Bezeroak oso garrantzitsuak dira guretzako, batez ere gure produktu eta zerbitzuei buruz duten ikuspuntua. Hori dela eta, inkesta bat pasatuko diegu, bertan beraien iritzia utz dezaten. Arazorik egongo balitz, ordea, erreklamazio orriak haien eskura egongo dira, izandako arazoez gu jakinarazteko, eta ahal dugun neurrian hauek hobetzeko.

